

KUIR TASUNAK



Egileak **Alaitz Arenzana Letamendi** eta **Harriet C. Brown**
Ilustrazioak **Jules Inés Mamone (Femimutancia)**
Itzulpena **Beatriz Barriola Ayerdi** eta **Ibai Sarasua García**
Itzulpenak **Beatriz Barriola Ayerdi**, **Ibai Sarasua García**
Diseinua eta maketazioa **Olatz Goikouria Miñaur**
Inprimaketa **Estugraf Impresores**

Argitalpena **consonni & Zinegoak**
www.consonni.org
www.zinegoak.com

Lehen edizioa
2025eko abendua, Bilbo
ISBN: 978-84-19490-72-8
Lege-gordailua: BI 00132-2026
Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0
Nazioartekoa (CC BY-NC-ND 4.0) lizentziapean dago.
Testuak, edizioa, itzulpenak eta irudiak beren egileei dagozkie.
Argitalpen hau Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin finantzatu da.

EUSKO JAURLARITZAREN LOGOA GEHITU!!!!



KUIRTASUNAK egunerokoa berriz
pentsatzera gonbidatzen gaitu, begirada
disidente eta afektibo batetik. Maialen, Nora,
Selene, Marti eta Ursuk emango diote bizia
Kuirtopiari, aterpe bihurtutako liburudenda
txikiari. Bertan, zaintza, erresistentzia eta
desio sare bat ehunduko dute.

Hainbat gai jorratzen ditu argitalpen honek:
polimaitasuna, harreman afektibo-sexualak,
transexualitatea, erresistentzia bisexuala,
antiarrazakeria, adinkeria, lan sexuala eta
patriarkatuaren eragina gure gorputz eta
portaeretan.


Askatasun eta pentsamendu kritikorako
gune gisa, auzoetako liburu-denden
biblioaniztasuna eta boterea ospatzen
duen obra da.



KUIRTOPIA



URSUS




MAIALEN



MARTI / MARTINA














♥ BELLYA

Mi gold show
- 5 gold, 4 min



🌟 Go to have se

📶 Cg_34: Say my
Ben1345 t: l'm
Lucky_yinx: Ar
Hentia_Hem: N


💰













POLIMAITASUNA

Monogamiatik urrutzeko modu anitzez hitz egiteko erabiltzen den aterki-terminoa. Hau da, zure bikoteak zure lehentasuna, zure erdigunea eta zure guztia izan behar duelako ideia albo batera uztea; edo “benetako” maitasuna eta desira eskusiboak izan behar dutelako ustea zalantzan jartzea. Amatonormatibitatea auzitan jartzeak akordioak adosteko beldurra onartzea eta elkarrizketa deserosoak izatea dakar, harreman interdependentek, hau da, aske eta zainduak, izateko itxaropenarekin. Sandra Bravo. Idazlea, terapeuta eta aktibista ez-monogamoa, Hablemos de Poliamor proiektuaren sortzailea.

KUIRTASUNAK/ KUIR IDENTITATEAK

Queer hitza ingelesetik dator eta “arraroa” esan nahi du, zentzu iraingarrian. LGTBQ+ kolektiboak iraina bere egin eta esanahi berri bat ematea erabaki du. Horrela, identitate queerrek cisheteroarauan sartzen ez diren gorputzak, orientazio sexualak eta genero-adierazpenak dituzten pertsona guztiak izendatzen dituzte. Generoa aldaezina ez dela ulertzen duten bizitzeko, adierazteko, komunikatzeko eta munduan egoteko moduak dira. Irantzu Varela, idazlea.

ANTIRRAZISMOA

Nire anai-arreba beltz eta arrazializatuei: Gure historia ukatzen digutenean, itzaltzen den argi bat dago. Norbaitek argia itzaltzen du, baina gu iluntasunean pizten gara, iluntasuna garelako, ilunantza garelako. Bagara, erresistitzen dugulako. Sakonuneetan eta itzaletan beren argia sortuz bizirauten ikasi duten animalia bioluminiszenteen eta izaki mikroskopikoen komunitate baten parte gara. Zenbat eta iluntasun gehiago, orduan eta distira handiagoa. Dir-dir egiten dugul! Mafe Moscoso, idazlea eta irakaslea.

SEXU LANA

Pertsona helduen artean askatasunez adostutako sexu lana lan-jarduera bat da. Sexuagatik kobratzea ezin dela enplegu legitimoa izan esaten denean, gainerako lanak idealizatzen dira, eta ahaztu egiten da horietako asko ere esplotazioan eta zaurgarritasunean oinarritzen direla. Badago zerbaite sakonki kaltegarria sexu lana lana dela ukatzean, eta ez soilik horretan arituz bizibidea ateratzen duten prekarizatutako emakumeentzat. Itziar Ziga, idazlea.

LODIFOBIA

Bizi garen sistema koloniala eta diziplina jartzailea da, bere funtzio nagusietako bat gorputzaren diziplina (ezak) kontrolatzea du, eta gizentasuna horietako bat da. Hori dela eta, lodifobiak kolonialismoaren hondar deshumanizatzaile eta diziplinatzailetik gehiago du, “loditasunari” beldurretik baino. Kontua ez da osasuna, ezta “gehiegizko” koipea ere, baizik eta gehiegizko diziplina falta. Tatiana Romero, historialari dekoloniala eta aktibista (trans)feminista ezaguna.

LGTBIQ+ MEMORIA

Ikuspegi kritiko batetik, memoriaren, generoaren eta sexualitatearen arteko harremanek aukera ematen digute gure gorputzen, desiren eta plazeraren historia politikoak ikertzeko; mendebaldeko desagerrarazte-ordenezikiko erresistentzia kolektiboko

praktikak ezagutzeko (jazarpen somatopolitiko —arrazaz-, sexu-genero-, etnia-, erlijio-, lurralde-, adimen- eta afektibitate-arlokoak—; kolonialitatea, gerra, genozidioa); eta transmutaziorako gainazal erotiko berriak asmatzeko: norbere begirada okerren genealogia eta historiografiak. Duen Neka’hen Bazán Sacchi. Ikus-entzunezko artista, ikertzaile, idazle hegoamerikar trans marika.

ADINKERIA

Adineko pertsonen sexualitatea bizitzako beste edozein etapatakoa bezain anitza eta aberatsa da. Hala ere, gure kulturaren esparru isilduenetako bat izan da betidanik. Sexu-gozamena gaztetasunarekin eta erakargarritasun-kanon batzuekin soilik lotzen duten gizarte-sinesmenek diraute oraindik ere, eta horrek errealitate hori ikusezin bihurtzen laguntzen du. Dena dela, adina, berez, ez da sexu-harremanak eta horiei lotutako plazera mugatzen dituen faktore erabakigarria. Anna Freixasen testuetan oinarritutako definizioa.

BISEXUALITATEA

Bisexualitatea genero desberdinetako pertsonetik erakarpen erromantiko edo sexuala sentitzeko potentziala da, ez nahitaez aldi berean ezta modu berean ere. Indarkeria estrukturalak markatutako esperientzia politiko eta soziala eskatzen du, batez ere, fidagarriak ez garelako ideia baitu oinarrian, eta horregatik, zalantza gisa interpretatzen da. Baina, aldi berean, gurea den desira berezi eta bakar horretatik sortzen den euforia ere badakar. Noemí López Trujillo. Robyn Ochs-en definizio baten eta Manifesto Bisexualen (1990) oinarrituta. Kazetaria eta idazlea.

TRANSA

Transak sexua eta generoa arautzeko ezarritako arauak apurtzen ditu. Genitalek pertsonen patu biologikoa markatzen dutelako ideia birrintzen du. Zure genitalek ez dizute esaten nor zaren, ezta nola jokatu behar duzun ere. Pertsona transek askatasunez eraikitzen dute beren generoa, gizon edo emakume izateko modua, genitalak kontuan hartu gabe. Eta badira, gainera, ez gizon ez emakume izatea erabakitzen dutenak. Josebe Iturrioz. Aktibista transfeminista (Gipuzkoako Trans Asanblada) eta Filosofia irakaslea.

QUEER EKOLOGIA

Ez dago ekologia baino gauza queerragorik, bizitza ez baitatza lerro zuzenetan, ezta kategoria finkoetan ere. Queer ekologiak dio ahaidetasuna dagoela gizakien, espezieen, teknologien eta lurraldeen artean, eta interdependentzia-sare estu batean lotuta daudela, zeinean muga dikotomikoak lausotu egiten baitira, esaterako, natura eta kultura, gorputza eta ingurunea, bizia eta bizigabea. Dibertsitate hori suntsitzen eta bezatzen saiatzen diren sistema kapitalista, kapazitista, heteropatriarkal eta kolonialen kontra, ekologia queerrak ekodependentzia ikusarazten du eta harreman hierarkiarik gabeak eta interseksionalak sustatzen ditu, bizitza sostengatzeko eta egun dakarzkigun erroenkei aurre egiteko gai direnak. Mirene Begiristain Zubillaga, investigadora en agroecología y ecofeminista/ agroekologian ikertzailea eta ekofeminista.

E ROCKY
HORROR
HOUSE SHOW

